

KATAMARRAN UME-TXOKOA

GUNEAREN ARAUAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. **Katamarran ume-txokoa izena du espazio honek.** Soraluzeko Udalaren babespean sortu zen. Etxaburueta 3 kalean dago kokatuta. Espazioa hainbat zatitan banatuta dago, bata Udaleko langileen erabilpenerako, bestea Kontrargi Argazkilari taldearen gunea eta hirugarrena **0-4 urteko haur eta familien espazioa.**

2. BAZKIDETZA:

a. Espazio hau erabili ahal izateko **ezinbestekoa da bazkide egitea.** Bazkide zerrenda unean-uneko talde-eragileak kudeatuko du. Bazkide egiteko **izen-emate orria bete beharko da Udaleko harrera bulegoan edo online galdetegia betez.** Familia da bazkide egingo dena; beti ere 0-4 urte bitarteko haur bat edo gehiagoren izen abizenak oinarri hartuta.

3. KUOTA:

a. **Kuota familiako bakarra** izango da. Bazkidetza urtebetekoa da eta urteko kuota (10€) ordaindu ondoren lortuko da. Urtarrilaren 1etik 15era bitartean ordaindu beharko da. Kasuan kasuko ordainketa aukera ezberdinak talde-eragilearekin adostuko dira; familia guztiek sarbidea izatea oinarri hartuta. Horrez gain, epe hori baino beranduago izen ematen duten familiek une horretan egin beharko dute ordainketa (Urtarriletik ekainaren 30era 10€ // Uztailaren 1etik abenduaren 31ra 5€).

4. NOR IZAN DAITEKE BAZKIDE:

- a. Soraluzeko familia oro, zeina 0-4 urte bitarteko haurren bat daukaten.
- b. 0-4 urte bitarteko haurrarekin eta helduarekin batera datozen adin-txikiko anai-arreba zaharragoak sartzeko aukera izango dute; beti ere, txikienen erritmo eta espazioak errespetatuz jarduten badute eta espazioan lekua baldin badago.
- c. Bazkide den haurr(a)ekin beste haurren bat/batzuk (lehengusua, laguna...) sartu daite(z)ke puntualki gertatzen den zerbait bada. Maiztasunez gertatuko balitz, bazkide egitea proposatuko zaio.
- d. Bazkidea ez den guraso baten haurra(k) behin eta berriz espazioa erabiltzen ari bad(ir)a horrela jokatuko da:
 - i. Haurrarekiko jarrera egokia mantenduko da beti.
 - ii. Gurasoekin harremanetan jarri eta bazkide egiteko aukeraren berri emango zaie.
 - iii. Hilabeteko epean ez badira bazkide egiten, haurrari sarrera

errazten dion bazkideari haur horrek ezingo duela sartu jakinaraziko zaio.

5. ERABILTZAILEEN ADINA:

- a. 0-4 urte bitarteko haurrak eta hauen familiak. Jaiotzen diren unetik 4 urte betetzen dituzten urte osoa kontutan hartuta.

6. ORDUTEGIA:

- a. Astegunetan 9:00etatik 13:00etara eta 16.00etatik 20:00etara egongo da erabilgarri, urteko 365 egunetan.
- b. Asteburu eta jai egunetan, berriz, 9:00etatik 20:00etara, jarraian.

7. AFOROA

- a. Espazioak 25 pertsonako aforo muga dauka, nagusi zein haur bateratua.
- b. Aforoa kontrolatzeko erregistro fitxa bat eta abako sistema erabiliko dira.
 - i. Espaziora sartzean, bakoitzak bere bazkide zenbakiarekin batera, sarrera ordua eta pertsona kopurua zehaztuko ditu erregistro fitxan (haurra + heldu bat = 2 pertsona).
 - ii. Hala, abakoan *kanpoan* alderditik *barruan* alderdira bi fitxa pasako ditu.
 - iii. Abakoko fitxa denak *barruan* daudenean, atzetik datorrenak ezingo du espazioan sartu. Horretarako, lehenengo sartu denak zenbat denbora daraman begiratu beharko du. Ordubete baino gehiago badarama bertan, bazkide horrek lekua utzi beharko du hurrengoei lekua egiteko.
 - iv. Espaziotik ateratzerakoan, erregistro fitxan irteera ordua jarriko da, baita ateratzen diren pertsona kopuruak *barruan* alderditik *kanpoan* alderdira pasatu ere abakoan.

8. GILTZAK:

- a. Familia-bazkide bakoitzak giltza sorta bakarra izango du (bi giltzez osatua kanpoko hesikoa eta barruko ate berdekoa).
- b. Ezingo da kopiarik atera.
- c. Giltza sorta bakoitzagatik 3€ ordainduko dira, kuotaz apartekoak.
 - i. Familia baten bazkidetza amaitzerakoan, giltza-sorta itzuliko da eta 3€-ak eskuratuko dira.

9. GARBITASUNA eta MANTENUA:

- a. Udaleko garbitzaileak aste barruan egunero garbituko du espazioa. Hala ere, bazkideen ardura izango da egunero txukun eta garbi mantentzea, zikindu ezkerro erratza edota fregona pasatuz.

- b. Urtean zehar 2 garbiketa orokor antolatuko dira auzolanean eta bazkideek bertan parte hartu beharko dute.
- c. Zerbait hautsita badago jaso eta talde eragileari jakinaraziko zaio.

10. HONDAKINAK:

- a. Bazkidearen ardura izango da pasabidean kokatuta dauden zabor ontziak (organikoa, errefuxa, plastikoa eta papera) era egokian erabiltzea.
 - i. Pardelak ezingo dira guneko zabor ontzietan bota; bakoitzak berea hemendik kanpo bota beharko du.

11. HIZKUNTZA:

- a. Haur guztiek EUSKARAZ dakite eta hori izango da *Katamarran ume-txokoko* hizkuntza. Euskaldunak diren gurasoak euskaraz arituko dira. Euskaraz ez dakitenekin elebitasun erreala izango da lehen aukera (elkarrizketa euskaraz-gaztelaniaz).
- b. Familiei zuzendutako informazioa eleanitzean jarriko da, beti euskarazkoa lehenetsiz.
- c. Jostailuen erosketak egiterakoan eta ikastaro/tailer/ikuskitunak antolatzerakoan kontuan hartuko da hizkuntza nagusia euskara izatea.

12. DEBEKUAK:

- a. Norberarentzat edo familiako kide batentzat erabilpen pribatua ematea espazioari.
- b. Edariak eta jatekoak espazio barrura sartzea, haurrentzako merienda lekua baitago horretarako.
- c. Erretzea.
- d. Gaixo dagoen haurra eramatea.
- e. Hurrei zuzendutako TELEBISTA, MUGIKORRAK eta TABLETAK ez dira onartuko. Gune hau sozializatzeko eta jolasa sustatzeko da.

13. ANTOLAKUNTZA:

- a. Urtean, gutxienez, batzar ireki bat egingo da urteko balantzea egin eta talde eragileko kideak berritzeko.
- b. Talde eragilea.
 - i. Egunerokoan erabakiak hartuko dituena, araudia betetzeaz arduratuko dena (ez da polizia lanik egingo), harturiko erabakiei jarraipena egingo dena, erosketez arduratuko dena, udalarekin harreman iraunkorra mantenduko duena...
 - ii. Urtebeteko iraupena izango du eta bazkide guztiok txandaka (bolondresik ez badago zozketa bidez) aukeratuak izango gara.
- c. Materiala.
 - i. Familiek ezingo dute materialik ekarri gunera, bertan uzteko,

talde eragilearekin hitz egin gabe.

14. ARAU-HAUSTEAK ETA MUGAK:

- a. Arauak betetzeko ardura norberarena da.
- b. Araudia, errespetua, garbitasuna eta bizikidetzaren arauak betearazteaz talde eragilea arduratuko da.
- c. Arauak betetzen ez dituen familiak kanporatuak izan ahalko dira.

15. Katamarran ume-txokoko erabiltzaileen ESKUBIDE eta BETEBEHARRAK:

a. ESKUBIDEAK:

- i. Sarrera, giltza eta gunearen erabilpena.
- ii. Bertan antolatuko diren ekintzetan lehentasuna.

b. BETEBEHARRAK:

- i. Arauak betetzea.
- ii. Urteko batzarrean parte hartzea.
- iii. Auzolanak egiten direnean (garbiketarako etab) parte hartzea.
- iv. Antolatzen diren ekintzen prestakuntzan parte hartzea.
- v. Talde eragileko kide izatea, hala dagokionean.
- vi. Urteko kuota ordaintzea.